

## HITZ BITAN

**SINGAPUR.** Marinel bat hil da eta beste hiru desagertu itsasoan izaniko istripuan



AZIZ HUSSIN / EPA

## Herbeheretako ontzi batek Armadako patruila bat jo du

Singapurko Itsas Armadako patruila itsasontzi bateko marinel bat hil zen eta beste hiru uretara erorita desagertu ziren atzo, Malaysiako kostetatik hurbil, Herbehereetako merkantzia-ontzi batekin talka egitearen ondorioz. Istripua izan zutenak singapurtar *Courageous* patruila-ontzia eta Herbehereetako 52.000 upeletako *ANL Indonesia* mer-

kantzia-ontzia ziren. Ezbeharra gertatu zelarik, *Courageous*-eko tripulazioko lau emakume marinel logelan ziren eta txopako eskuinalde horretan zen talka egitea jazo. Honek egindako zulotik itsasora erori ziren hiru marinelak. Beste tripulanteek zauri arinak izan zituzten eta Herbehereetako ontziok ez zuten minik hartu.

## EKIALDE HURBILA

## Israel Berlingo Harresi bat eraikitzen ari dela dio Arafatek

Erredakzioa | DONOSTIA

Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionalako presidentek *Le Parisien* egunkariari eskainitako elkarrizketa batean salatu du Israelgo Armada Berlingo Harresi bat ari dela eraikitzen Jerusalem inguruan. Harresi hori da Palestinarekiko bereizteko Tel Aviv eraikitzen ari den 350 kilometrotik gorako hesia, zeinak Arafaten hitzetan 1967an mugatzat ezarri zen Lerro Berdea nabarmen urratzen duen.

«Israeldarrek nahi dutena egiten dute, eta beraien helburu bakarra gu itotzea da», adierazi du Arafatek. Israel gerazteko, nazioarteak eta bereziki AEBek esku hartu behar dutela nabarmendu du.

Israelgo Armadak Belen okupatuta eta etxeratze agindupean du, baina neurri hori bihurtan behera utziko duela iragarri du, kristau ortodoxoek Eguberria eta katolikoek Epifania ospa dezaten.

Albiste Natibitatearen Basilika zaintzen duten frantziskotarrek eman zuten atzo. Alabaina, «engainu bat» dela salatu zuten, «nazioarteko komunitateari Belen aske dela sinetsarazteko, errealitatean okupatuta delarik eta Israelgo Armadak giza eskubide funtsezkoenak zangopilatzen dituelarik».

Belenen bizi diren 5.000tik gora kristau ortodoxoen Eguberri ospakizunetara Arafatek joateko aukerarik ez du izango. 2000. urtea arte, ohitura zeukan ospakizun horietan egoteko. Haatik, iaz bezala, Israelek ez dio Ramalatik irteteko baime-nik eman.

Gatazkaren eguneroko gurgil zoroaren kontutik, bost soldadu israeldar eta palestinar bat zauritu ziren atzo Janinen (Zisjordanian) gertatutako tiroketa baten ondorioz. Gazan, berriz, Tsahalek azken egunotan palestinarren 26 etxe suntsitu dituela eta artegatuta azaldu da AEBetako Gobernua, eta Tel Avivi gelditzeko eskatu dio.

## IPAR KOREA

### Washingtonen eta Piongiangen arteko elkarrizketak has daitezzen eskatu du Errusiako Gobernuak

Errusiako Atzerri ministroorde Vladimir Losiukovek atzo adierazi zuenez, Ipar Korearen programa nuklearrak sortu duen krisiak «irtenbide ona izango du». Hala ere, arazoaren irtenbidea Piongiango eta Washingtongo gobernuen eskuetan dagoela eta bien arteko elkarrizketek «berehala» hasi beharko luketela gaineratu zuen. Ildo beretik, Seul eta Japoniak ere krisiaren irtenbidearen aldeko bilerak egiten dihardute. Txinak, bestalde, bitartekaritza lanak egiteari uko egin dio orain arte.

## BOLI KOSTA

### Bake negoziazioak berriz abiatzeko adostu dira militar matxinoak eta Gobernuak

Boli Kostako Gobernuak eta haren kontra matxinaturiko militarrek hilaren bukaeran Parisen bake elkarrizketei ekiteko adostu direla adierazi zuen atzo Dominique de Villepin Frantziako Atzerri ministroak. Matxinoekin bildu zen atzo ministro frantziarra, Boli Kosta iparraldeko Bouake herrian. Mendebaldean ari diren beste bi talde armatuei negoziazioekin bat egiteko mezu bat bidaliko dietela iragarri zuten matxinoek.

## FRANTZIA

### Errabino bat zauritu dute labanaz Parisko sinagoga batean

Rabbi judu bat zauritu zuen sabelean ezezagun batek atzo labanaz, Frantziako hiriburuko sinagoga baten atarian. 34 urteko Gabriel fari errabinoak erietxean esan duenez, «anaia palestinarren odola mendekatuko» dutela iragartzen zuen gutun bat jaso du duela gutxi.

## ESTATU BATUAK

### New Yorkeko Polizia ikertuko dute urte hasieran lau lagun balaz hil ondoren

New Yorkeko Fiskaltzak hiriko Poliziaren jokabidea «sakonki» ikertuko duela iragarri du, urte hasieran izaniko hainbat atxiloketa saiotan agenteek lau lagun balaz hil ondoren.

## PERU

### 'Terrorismoa'-ren aurkako zenbait lege bertan behera utziko ditu Auzitegi Gorenak

*Terrorismoa*-ren aurkako zenbait lege bertan behera utziko dituela iragarri du Peruko Auzitegi Gorenak.

Lege hauek Peruko presidente ohi Alberto Fujimorik ezarri zituen, 1990eko hamarkadan, Sendero Luminosoren aurka borrokatzeko, eta Auzitegi Gorenak adierazi du lege horietako asko konstituzioaren aurkakoak direla.

Erabaki honen bidez, ehunka atxilotutak beren kasuak berrikusteko aukera izango dute, horien artean bizi arteko kartzela zigorra duten Sendero Luminosoko hainbat kidek.

Fujimoriren aholkulari izandako Vladimiro Montesinos errugabe izendatu dute bere aurkako diru garbiketa salaketa zenbaitetatik.

#### BASETXEKO PARTAIDE BAT IZAN NAHI DUZU?

ORAIN DAUKAZU AUKERA!!!!

Urtarrilaren azken astetik martxoako lehen aste bitartean libre bazaude,

**EZ PENTSATU BIALDIZ.**

Deitu telefono zenbaki honetara eta zurekin harremanetan jarriko gara: 906291039

Partaideentzat eguneko soldata bat egongo da.



JAN PETER KASPER / EPA

## UHOLDEAK

### Atzera egin dute azken egunetako uholdeak

Urek behera egin zuten atzo Alemaniako hegoaldean, azken egunetan kalte handiak eragin ondoren. Eguraldi eskasak uholdeak eragin ditu Belgika, Frantzia, Alemania, Portugal, eta Erresuma Batuan. Irudian, boluntarioak dike bat egiten Alemanian.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria